

Nazioarteko Behatokia

Urtarrileko edizioa

**basque trade &
investment**

Bilbo, 2021eko urtarrilak 6



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Industria berde/jasangarriaren garapena

Apustu globala -Estatu Batuak barne- suspertze berdearen eta erregai fosilik gabeko energien alde



Big Data eta 5G

Pandemiaren ondorioek azkartu egin dituzte Big Data eta 5G teknologien aplikazio berriak






Inbertsio publikoaren garrantzi handiagoa

Ekonomia sustatzeko plan handiak hirugarren olatuak eragindako zurgabetasunaren erdian eta ekarri dituen ondorio ekonomikoaren testuinguruan



Balio-kateak eztabaidagai

AEBek, Txinak eta EBk erabaki dute autonomia estrategikoa bultzatzearen aldeko apustua egitea zenbait sektoretan, baina erabaki horrek oraindik ez du eraginik izan sektore pribatuan



AEBak
Biden-ek bere kargua hartu du eta Trump Administrazioaren politikak indargabetzen hasi da

EUROPAR BATASUNA
Erresuma Batuak COVID-19aren hirugarren olatuaren eta mugikortasun-murrizketen erdian burutu du EBtik irteteko prozesua

ASIA
Merkataritza libreko RCEP itunak bloke komertzial berri bat sortu du. Txinak sendotu egin du eskualdean duen lidergoa

AFRIKA
Indarrean sartu da AfCTA, munduan kide gehien dituen merkataritza libreko eremua sortzen duen ituna.

LATINOAMERIKA
Pandemiak inpaktu handia izan du kontinenteko ekonomietan: % 7ko atzeraldia



Hirugarren olatuaren intzidentziaren gorakada eta txertaketaren hasiera
Txertaketaren hasierak eragindako baikortasunak topo egin du pandemiaren hirugarren olatuaren birulentziarekin, zeinaren ondorioz neurri murriztaileagoak hartu behar izan baitira



Nazioarteko eszenatoki berria: AEBak multilateralismora itzuli dira
Biden-ek baieztatu du AEBak OMERa eta Pariseko Akordiora itzuliko direla, eta horrek ikusmin handia piztu du garatu lezakeen diplomazia berriagatik



Davos-eko foroa
Aurten egingo da eta hizpide hartuko dira COVID-19a, suspertze ekonomikoa, eta eraldaketa digitalaren, klimaren, migrazioaren eta hezkuntzaren erronkak




Merkataritza libreko bloke handiak
Asia-Ozeaniako RCEP eta Afrikako AfCTA itunek merkataritza libreko eremu handien sorkuntzarako joera bultzatu dute






(1) World Bank Global Economic Prospects, 2021eko urt.
(2) Confesbask, 2020ko urr.

BPGaren AURREIKUSPENA (urte arteko bariazioa %)



Perspektiba ekonomikoak egonkortu egin dira, baina pronostikoak ziurgabeak dira oraindik Munduko jarduera % 4 haziko da 2021ean. Suspertze-prozesu hori ez da berdina izango toki guztietan: Txinak hazkunde garrantzitsua izango du, baina gainerako ekonomia gehienek espero baino hazkunde leunagoa izango dute. Pandemiaren ondorioek eragina dute oraindik kontsumoan eta inbertsioan.






AMERIKA

AFRIKA



EUROPA

ASIA





Industriako PMI indizea

Nahiz eta herrialde gehienek 50,0 puntutik gorako balioekin jarraitzen duten (industriaren zabalkundea), manufaktura sektorea oso kaltetuta dago zenbait herrialdetan, besteak beste, Hegoafrikan eta Kenyan.



Langabezia


Langabezia-tasa murriztu egin da oro har, nagusiki Amerikan.




Inflazio metatua

Ondasun eta zerbitzuen prezioak Amerikan eta Afrikan igo dira gehien 2020aren amaieran; Argentina, Etiopia eta Nigeria dira urtarillaz gorotik balio metatu handienak dituzten herrialdeak


Europa






Amerika



Asia



Afrika





Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko azken orduko irteera-akordio batekin gauzatu da Brexit. Europak errekorreko kutsatze-kopuruak erdietsi ditu eta EBk erantzun koordinatu bat eman nahi du, Astra Zeneca enpresaren eta Oxford Unibertsitatearen txerto banaketaren inguruko polemika gero eta handiagoa den bitartean. Aldaera britainiarraren hedapena da liderrek aurrean duten berehalako erronketako bat

Urtarrilaren 1ean gauzatu zen **Brexit**, eta Erresuma Batuen “irteera gogorra” saihestu zen, azken orduko akordio bat adostu zelarik ondasun, zerbitzu, kapital eta pertsonen mugimendu-askatasuna bermatzeko **Europar Batasunaren** eta **Erresuma Batuen** artean. **EBren eta Erresuma Batuen arteko Lankidetzako Akordioari** esker, ez da ezarriko muga-zerga edo kuotarik, baina bai jatorri-arauak eta aduanetako tramiteak, zeintzuek, zalantzarik gabe, aldatetak eragingo dituzten trafiko komertzialean. Badirudi eragina bereziki nabaritu dela ondasunen merkataritzako logistikan eta zerbitzuak merkaturatzeko ziurtagiri profesionalean.

Espero da **Biden-en Administrazio berriak** Atlantikoaz bestaldeko harremanak berbideratuko dituela. EBren eta AEBen arteko aliantza (munduko BPGren % 40 baino gehiago hartzen dute bien artean) berritu beharra dago erronka global gero eta handiagoei aurre egiteko.

Abenduaren 30ean bukatu ziren **EBren eta Txinaren arteko inbertsioen itun integralari** buruzko negoziazioak. Hauek dira itun horrek Europarentzat ekarriko dituen abantailak: erraztasunak merkatura sartzeko orduan, diskriminazio eza eta hobekuntzak Txinako baldintza operatiboetan. Badira oinarritzko hainbat arlo landu gabe gelditu direnak, besteak beste, atzerriko inbertitzaileak diskriminatzen dituzten kontratazio nazionalen arauak edo mugaz gaindiko datu-fluxuen murrizketak.

Onartu da **EBren 2021-2027 urteetarako urte anitzeko finantza markoa** 1,0743 bilioi euroko aurrekontuarekin eta bertan integratu da Garapenerako Europako Funtsa. Next Generation EU tresnarekin batera (750.000 milioi euroko zuzkidura), EBk aurrekaririk gabeko finantzaketa izango du suspertze prozesua sostengatzeko eta epe luzeko lehentasunak aurrera eraman ahal izateko. Gainera, EBko agintariek helburutzat hartu dute isurketak % 55 murriztea 2030erako, eta onarpena eman diote giza eskubideen arloko zigorren erregimen globalari

Italiako krisi politikoa areagotu egin da azken asteetan, eta Matteo Renzi-k Giuseppe Conte-ren gobernua utzi du arrazoi “demokratikoak” argudiatuz. **Portugalek** Rebela de Souza kontserbadorea berrautatu du Errepublikako presidentetzarako pandemia garaian izan duen une okerrenaren erdian. **Alemanian**, CDUk Armin Laschet (Ipar Renania-Westfalia eskualdeko presidentea) aukeratu du Angela Merkel-en ondorengo izateko.



Aukera-sektoreak:

- Alemania: hidrogenoranzko trantsizioaren aldeko apustua egin du
- Erresuma Batua: Brexitaren ondorengo horizonte berriak
 - **Healthcare**: fokua digitalizazioan jarrita
 - **Energia berdea**: 160 milioi libera itsasoko energia eolikorako eta 270 milioi libera Green Heat Network Fund funtserako (2022-2025). Beste helburu batzuk: hiri adimendunak eta garraioaren, berogailuen eta tokiko energia-sarearen deskarbonizazioa





Biden bere karguaz jabetu da ikusmin handi baten eta segurtasun neurri zorrotzen erdian -joan den urtarrilaren 6an Kapitolioan izandako gertakarien ondoren- eta jakinarazi du 1,7 bilioi USDeko plan bat abiaraziko duela ekonomia suspertzeko, eta OMEra eta Pariseko Klimaren Akordiora itzuliko dela. Latinoamerikak oso egoera ekonomiko zaila bizi du, bere BPGa % 7 inguru murriztu baita 2020an. Estatu Batuak eta Brasil dira COVID-19aren pandemiagatiko heriotza gehien dituzten herrialdeak.



Aukera-sektoreak: oil&gas (Surinam), energia berriztagarrien sorkuntza (AEBak, Brasil, Txile eta Mexiko), zerbitzu teknologikoak (IKTak, zibersegurtasuna, AA) (AEBak, Txile eta Mexiko), trenbideetako mugikortasuna (Mexiko, Brasil edo Kolonbia) eta azpiegiturak (AEBak, Brasil, Mexiko eta Kolonbia), Oil&gas (AEBak, Argentina, Mexiko), nekazaritza (Argentina, Txile), ura eta ingurumena (Brasil, Mexiko), meatzaritza (Brasil)

- **Estatu Batuak:** Joe Biden-ek batasun mezua zabaldu zuen karguaz jabetzean eta demokrazia goraipatu zuen, aurreko presidentearen jarretatik bereiziz. Horrez gain, iragarri zuen 1,7 bilioi dolar gehiagoko finantza-pizgarri bat sortuko duela pandemiari aurre egiteko (martxoan onartutako 2,2 bilioiko paketeari gehituko zaiona), eta lehentasuna emango diola COVID-19aren aurkako borrokari, batzorde zientifiko bat eratuko duelarik horren ardura hartzeko; bi neurri horiek inflexio-puntu bat izan daitezke herrialdeko ekonomian eta osasun arloan.
- Arlo ekonomikoko lehen neurriek erakusten dute Biden-ek ekonomia berdearen aldeko apustua egingo duela, asmoa duelarik 10 milioi lanpostu sortzeko sektore horretan; beste alde batetik, neurri protekzionistak mantenduko ditu manufaktura industrian eta gutxieneko soldata handituko du. Kanpo-politikan, argi gelditu dira zeintzuk diren Administrazio berriaren asmoak OMEra eta Pariseko Klimaren Akordiora itzuliz, Mexikoko harresiaren eraikuntza geldiaraziz eta Estatu Batuen eta Kanadaren arteko Keystone XL oleoduktoaren eraikuntza bertan behera utziz.
- Espero da Estatu Batuek politika aktiboagoa izango dutela Latinoamerikarekiko. Ez da aldaketarik espero Venezuelarekiko, zigor politikari dagokionez, baina uste da berrikusi egingo dela Kuba terrorismoa sustatzen duten herrialdeen zerrendan sartzeko erabakia (Trump Administrazioaren azken erabakietako bat). Halaber, baliteke tirabirak sortzea Mexikorekin (migrazio politiken aldaketengatik) eta Brasilekin (Biden-ek kanpainen adierazi zuen Amazoniako baso-soiltzearen aurka borrokatuko dela).
- **Brasil:** bera da munduan COVID-19agatiko heriotza gehien dituen bigarren herrialdea, gainezka ditu ospitaleak, aurrekontu defizitarioak ditu pandemiari eta bere ondorio ekonomiko zein sozialei aurre egiteko, eta azken astean Ford enpresa irten egin da Ford enpresa irten egin da Diputatuen Kongresuan dauzkan bi hautagaiak garaille ateratzea datorren otsailaren 1ean; bata behe ganberako presidentetzarako hautagaia da (behe ganbera giltzarria da agenda politikoa erabakitzeko eta, batez ere, Bolsonaroren aurkako edozein impeachment saiakera geldiarazteko) eta bestea, Senatuko presidentetzarako hautagaia.
- Norabide aldaketak gerta litezke 2021erako deituta dauden hauteskundeetan (otsailen Ekuatorren, apirilean Perun, eta azaroan Txilen). Gauza bera gerta liteke Argentina eta Mexikoko hauteskunde legegileetan. Pandemiaren kudeaketaren ebaluazioa izango dira, zeinak lur jota utzi baitu kontinentea 2020an (ia % 7ko atzeraldi ekonomikoa). Bestalde, chavismoak Batzar Nazionalaren kontrola berreskuratzen du Venezuelan, eta horrek ahuldu egin du Juan Guaidó “presidente enkargatu” bezala onartu duten Estatu Batuen, Europar Batasunaren eta Limako Taldearen posizioa.





Txinak potentzia ekonomiko, militar eta diplomatiko handi bat bihurtu nahi du Txinako Alderdi Komunistaren mendeurrenean. Nahiz eta modu eraginkorrean kudeatu duen pandemia, Txina udaz geroztik izandako koronabirus agerraldi okerrenaren erdian dago Hebei probintzian, noiz eta pandemiaren jatorria ikertzeraz bidalitako OMEko aditu taldea Wuhan probintziara iritsi den unean

Arlo ekonomikoan, Txina 2019koa baino jarduera industrial handiagoarekin eta BPGaren % 2,3ko hazkundearekin itxi zuen 2020a. Aurten, erraldoi asiarrak zortzi helburu garrantzitsu ditu bere politika ekonomikoan, besteak beste, zientzia eta teknologia sendotzea, hornikuntza-katearen independentzia lortzea eta “kapitalaren hedapen desordenatua” prebenitzea

Txinaren eta Afrikaren arteko harremanak: Beijingek diplomazia urte berri bat abiatu du bere diplomatiko gorena Afrikara bidaliz eta Zetaren Bideari buruzko bi MoU sinatutz Kongoko Errepublikakoarekin eta Botswanarekin. Bestalde, urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean Txinaren eta Maurizio Uharteren arteko Merkataritza Libreko Ituna, 2019ko urrian amaitu zena

Chip War: Trump-ek bere presidentetzako azken egunak aprobeztatu ditu Txinaren kontrako azken ekintzak agintzeko; besteak beste, Huawei enpresari saldu ahal izateko hainbat lizentzia baliogabetu ditu, horien artean Intel enpresaren txipei dagozkienak. Bestalde, Txinako gobernuak zigorrak ezarri dizkie Trump-en exekutiboko hogeita zortzi kideri edo kide ohiri, denak ere zuzenean edo zeharka Txinarekiko politikan inplikaturik egon direnak

Txina ekialdeko eta hegoaldeko itsasoetan egiten ari den presio gero eta handiagoa dela eta, Japoniak eta Erresuma Batuak otsailean batzartu nahi dute Pazifikoko segurtasuna aztertzeko. Baliteke bilkura horretan orobat mintzatzea Britainia Handia Akordio Transpazifikokoan (TPP) sartzeko aukeraz

India eta Japonia aurrera doaz euren lankidetzak komertzial eta ekonomikoan; hala, akordio bat sinatu dute Indiako langile kualifikatuak Japoniako lan-merkatuan sartu daitezten

Abenduan, Singapurrek eta Erresuma Batuak merkataritza libreko akordio bat sinatu zuten, berau delarik Brexitaren ondoren sinatutako bigarren itun komertzial garrantzitsuena Erresuma Batuentzat



Aukera-sektoreak:

- Txina: energia berriko ibilgailuak (NEV), elektronika malgua, zirkuitu integratuak, AA, blockchain...
- Japonia eta Korea:
 - Bio-osasuna: bizi-itxaropen luzea eta industria farmazeutikoaren potentziala
 - OEM/Tier1s automotive: funtsezko bezeroak ibilgailu elektrikoentzat
 - Itsasoko energia eolikoaren, eguzki energiaren eta hidrogenoaren aldeko apustua





Indarrean sartu da AfCTA, historian parte-hartze handiena -54 herrialde- izan duen merkataritza libreko ituna. Biden-en Administrazioaren politikek ikusmin handia sortu dute, eta pandemiaren intzidentzia gorantz doa kontinentean. Areagotu egin da Tigray (Etiopia) eskualdeko gatazka, eta horrek krisi humanitario larria sor dezake epe laburrean. Uganda eta Ghana bezalako herrialdeetan deitutako hauteskondeek agerian utzi dute berriro zein ahulak diren prozesu demokratikoak.



AFRIKA



Aukera-sektoreak: ekonomia zirkularra, Oil&Gas esplorazioa eta ekoizpena, digitalizazioa, osasun azpiegiturak, hiri-plangintza, zerbitzu publikoetako azpiegituren kudeaketa eta garapena, ura, saneamendua, hondakinak, ingurumen kudeaketa, hiriko eta hiri inguruko garraioa, aireportuak bezalako azpiegiturak eta kontinenteko eztanda demografiko eta urbanoak sortutako beste aukera batzuk

- **Afrikar Kontinenteko Merkataritza Libreko Akordioa (AfCFTA)**, ingelesezko sigletan) urtarrilean sartu da indarrean, eta mugarri bat markatuko du, Afrikako 54 herrialde barne hartzen baititu, 1.000 milioi pertsonatik gorako biztanleriarekin eta 3 bilioi USDeko BPG konbinatuarekin. **AEBek** euren **babesa** adierazi diote merkataritzako eremu berri horri eta berarekin kolaboratzeko asmoa jakinarazi dute. **Txinak merkataritza libreko akordio bat sinatu du Maurizio Uharteekin**, asmoa baita akordio hori “Afrikaranzko Zubi” bat izan dadila Txinarentzat; **Ebk**, bestalde, martxan jarri ditu Afrika Ekialdeko eta Hegoaldeko herrialdeekin sinatua duen **Economic Partnership Agreement** akordioa indartzeko negoziazioak.
- **Biden** AEBetako presidentetzara iritsi izanak **eszenatoki diplomatiko berri bat** ireki du, posible delarik OMEren Afrikako jarduera indartzea, baldin eta desblokeatzen badu **Ngozi Okonjo-lweala nigeriarraren aukeraketa** OMEko zuzendari izateko. Era berean, espero da Estatu Batuek konpromiso handiagoa hartuko dutela OMErekin eta Nazio Batuek eskualde horretan dituen agentziekin, bai eta Batasun Afrikarraren bake misioekin eta 2018an abiarazitako *US Africa Strategy* indartzeko asmoarekin.
- Afrikako herrialdeek adierazi dute **COVID-19aren** bigarren olatuak 82.000 hildako utzi dituela, eta lehen olatuan baino hildako gehiago dituztela. Afrikak ez du uste txertoak (30 milioi) **2021eko martxoa**, baino lehen iristen hasiko direnik, dosi gutxien erosi dituen kontinentea delako eta txertaketa beste inon baino beranduago hasiko delako.
- **Tigray eskualdean (Etiopia)**, TPLF talde erregionalaren eta tropa federalen arteko **liskar armatuak** benetako **gatazka ireki** bilakatu dira, eta Eritreako -eskualde horrekin muga egiten duen herrialdeko- tropek ere bat egin dute gatazkarekin. Tigrayko biztanleriaren desplazamenduak **krisi humanitario** bat sortu du, eta baliteke datozen asteetan egoerak okerrera egitea. Giza Baliabideen urraketa larriak salatu dira.
- Hauteskondeak egin dira **Ghana** eta **Ugandan**, eta **iruzur** akusazioak izan dira berriro. Museveni (Uganda) eta **Akufo-Addo** (Ghana) berrautatuak izan dira. NBEk bultzatutako **Libiako** elkarriketa politikoko foroak azkenik adostu du **gobernu bateratu bat aukeratzeko** metodoa, 2011tik nagusi den zatiketa gainditzeko.



AUKERA-SEKTOREAK

Ibilgailu elektrikoak

Auto elektrikoaren aldeko apustua, Txinak eta Estatu Batuek aurrerapenak iragarri dituztelarik karga-azpiegituren garapenean eta baterien ekoizpenean.

Lidergoa lortzeko lasterke

Automatizazioa

Pandemiak azkartu egin ditu automatizazio-teknologien arloko inbertsioak

- Ikaragarri azkartu da **industria eta zerbitzu sektore guztien digitalizazioa**. **Pandemiak berekin ekarri du robot gehiago sartzea lantegietan, biltegiengan nahiz bulego administratiboetan**
- Aukera-sektore berriak lantokietako baldintza berrien eta kontsumo-joera berrien inguruan: **4.0 industria, robotizazioa, sentsorizazioa, e-learning-a, AA, 3D inprimaketa, cloud-working-a, gamifikazioa, aurpegien errekonozimendu-teknologiak, merkataritza elektronikoa, blockchain-a...**

Blockchain eta kriptotxanponak

Fintech sektorean ez eze, Blockchain teknologia beste sektore batzuetan ere aplikatzeak iraultza eragin dezake industriaren etorkizunean. Bitcoin-ak errekor historikoa lortu du, mugarri bat markatu duelarik kriptotxanponen arloan

- Txina sistema** berri bat eraikitzen ari da nazioarteko banku zentralen **txanpon digitalak** bere Blockchain proiektu nazionalaren (**Blockchain Service Network**) barruan integratzeko
- Asko hazi da Txinako enpresa teknologiko handien eta beste sektore batzuetako enpresen **inbertsioa Blockchain arloan**

Elektronika

Gerra irekia Txinaren eta Estatu Batuen artean erdi-eroaleen industrian (*Chip War* delakoa), 4 bat bilioi dolarretan baloratutako sektorea da, eta **Taiwan edo Hego Korea** dira aktore garrantzitsuenak.

- Txipen fabrikazioko** industria **zabalkunde bete-betean dago**. **Erdi-eroaleen negozio globala gero eta anitzagoa eta kontzentratuagoa da**
- Abenduan, EBko 17 herrialdek erabaki zuten dozenaka mila milioi inbertituko zituztela erdi-eroaleen lantegi berrietan, EB abangoardian kokatzeko eta hamarkada honen erdi aldean **autonomo bihurtzeko**

MERKATUKO JOERAK

Industria berde/jasangarriaren garapena

AEBak Pariseko Klimaren Akordiora itzuli dira, eta bat egin dute EBk hasitako bidearekin (New Green Deal) eta Txinak industria berdeen alde egin duen apustu berriarekin

- Berriztagarriak energia matrize gisa: **eolikoa, hidrogenoa, eguzki energia + geotermia, olatu energia**
- I+G+B** erregai fosiletan oinarritzen ez diren energia alternatiboak garatzeko, adibidez, **hidrogenoa**
- Garapen jasangarriko ereduak eta osasun globalaren inguruko kezak aukera-sektore berriak bultzatuko dituzte (**osasuna, ekonomia berdea, birziklapena, kontsumo bio-arduratsua**)

Big Data eta 5G

Pandemia luze honek eraldaketa industrialeko prozesuak azkartu ditu IoT-n oinarritutako espazio adimendunetan eta konputazio kognitiboan (5.0 Industria). Big Data-ren eta 5Gren erabilpen komertzialak perspektiba berriak ireki ditu enprezentzat

- Big Data**ren ustiapena, sektore anitzetan aplikatu daitekeen tresna berria
- 5G teknologiaren aukerak** epe ertainean: garraio konektatua, urruneko operazioak, *Smart services*, robotika autonomoa, aplikazioak hezkuntzan, turismoan, nekazaritzan, arriskuen prebentzioan...

Inbertsio publikoa murrizketen eta txertaketaren erdian

Txertaketaren hasierak eragindako baikortasunak topo egin du pandemiaren hirugarren olatuaren birulentziarekin. Ezinbestekotzat jotzen da inbertsio publikoa bultzatzea ekonomia suspertzeko

- Estatu Batuek 1,7 bilioi USDeko **pizgarri ekonomikoko pakete berri bat** iragarri dute
- Aukera-sektore berriak inbertsio publikoko sektore estrategikoetan: **energia berriztagarriak, garraio jasangarria, klima aldaketarako egokitzapena, hiriko garapen jasangarria, Smart Cities, Big Data**

Balio-kateak eztabaidagai

Pandemiak, Brexitak eta AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialak areagotu egin dute aldaketei buruzko gogoeta. **Reshoring-a aukera erakargarria da multinazionalen % 35entzat**

- Eskualde mailako **hub-en** eta arriskuaren **dibertsifikazioaren (multiple sourcing)** aldeko apustua
- Badirudi Biden-en gobernuak indartu egingo duela Trump Administrazioak abiarazitako **Reshoring Initiative** delakoa, adierazi baitu **kezkatuta dagoela atzerriarekiko duten menpekotasunagatik**
- Txinak eta Europar Batasunak autonomia estrategikoa lortu nahi dute, batik bat tech- eta bio- sektoreetan

EUSKADI

BASQUE COUNTRY



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekintzeko Euskal Agentzia



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT